

2017/11/28an EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE  
LA CORPORACIÓN. Día 28/11/2017.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
Maite Uribe Beristain  
Aitor Zubizarreta Alegria  
Aintzane Agiriano Errasti.  
Edorta Barandiaran Garcia  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Rafael Bernal Gato  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko azaroaren 28an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 28 de noviembre de 2017 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2017/10/24an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

Gai zerrendako hurrengo gaia aztertu baino lehen, Rafa Bernalek, IRABAZI Eskoriatza bere taldearen eta EH BILDU Eskoriatza taldearen izenean eskatu du gai zerrendako hurrenkera aldatzea eta ondoren "HIRI MUGIKORTASUN MAHAIA SORTZEARI" buruzko mozioa aztertzea.

Proposamena bototara jarrita, aho batez erabaki da eskaera onartzea, eta ondorioz, ondoren aztertuko da aipatutako mozioa.

## **3.- MOZIOA: IRABAZI ESKORIATZA UDAL TALDEAREN PROPOSAMENA ESKORIATZAKO UDALAK "HIRI MUGIKORTASUN MAHAIA" SORTZEA BULTZA DEZAN.**

Hitza eman ondoren, Rafa Bernalek jakinarazi du IRABAZI Eskoriatza bere taldeak zein EH BILDU Eskoriatzak mozioa bertan behera uztea erabaki dutela.

Mozioa bertan behera utzita, erabaki hori hartzeko izandako arrazoia azaldu ditu.

Ondoren, eztabaidea izan da bertaratutakoen artean. Laburbilduz, esandakoak honako hauek dira:

\* Rafael Bernal: azkenengo hirigintza batzordean argi gelditu zen gobernu taldea arduratuta zegoela mozio proposamena, hau da, mugikortasun mahaia sortzea, politizatu zitekeelako. IRABAZIK eta BILDUK esan nahi dugu inolaz ere ez dela horrelakorik pentsatu, uste baitugu gai korapilotsua dela, adostasun eta parte hartze handia eskatzen duena. Eta, logikaz, horrelako gai bat politizatzeak talde porrota ekarriko ligu. Keinu bezala, eta autobusen gaiak gaurko bilkuran eragin ez izateko, mozioa bertan behera uzten dugu. Era berean, EAJ eta Elizateak gonbidatzen ditugu herritarrentzat garrantzi eta interes handia duen gai hau hurrengo batzordean aztertzera, edo, hobeto, gai hori bakarrik aztertzeko batzorde batean.

\* Josu Ezkurdia: gure aldetik, eta lehendabizi, eskerrak ematea zuen proposamenarengatik, gure ikuspuntutik egia baita uste genuela gai hau politizatzen ari zela, eta eskertzekoa da zuek ere horrela ikusi izana. Eta bigarrenik, gonbidapena onartzen dugu, nahiz eta aurreikusita izan abendurako batzorderako mugikortasunari buruzko gure proposamenaren ildo nagusiak zehaztuta egongo direla eta aurkeztuko dizkizuegula. Zuekin bat egiten dugu, eta guk ere uste

dugu gai hau aztertu beharrekoa dela, agintaldiaren bi urte igarota uste baitugu asko egin dugula gai horri buruz, eta gelditzen den denboran gehiago egiteko asmoa daukagu. Horregatik, gure proposamena batzordean aurkezteko eta zuekin guztiokin adosten saiatzeko asmoa genuen.

Rafa Bernal: tira! politizatzearena, eta horrela jakinarazi nuen batzordean, gure ikuspuntutik inoiz ez da izan gure helburua. Ez dugu uste mozio horrekin gaia politizatzen denik, eta hori ez da izan mozioa bertan behera uzteko arrazoia, politizatu ez dadin utzi dugu bertan behera.

Nestor Arana: ni pixka bat harrituta nago, badirudi politizatza zerbait txarra dela, eta nik uste dut politika egitera gatozela hona. Ez dut ulertzen gauza bat politizatuta dagoela esatea; horretara gatoz, hitz egitera. Horregatik, ez dut ondo ulertzen politizatuta dagoela esaten denean, eta ondorioz, ez gaude ados.

Josu Ezkurria: bai, gu politika egitera gatoz, baina, gu, politika egiteaz gain, lanera gatoz; eta horregatik uste dugu mugikortasunaren gaia, beste proiektu batzuk bezala, aurrez asko landu behar dela emaitza onak lortu nahi baditugu gure herrian.

Aitor Zubizarreta: lanarena... gu beti egon gara eta beti gaude prest lan egiteko, eta, izan ere, batzorde guztieta etaortzen gara. Lanerako prest gaude. Baina, batzorderen batean edo mozio baten aurrean esaten badiguzue politizatzen ari garela, baina, bakoitzak bere ikuspuntua du. Edozein gairen aurrean, bakoitzak bere ikuspuntua du, eta uste dut ona dela bakoitzak berea adieraztea eta mahai gainean jartzea. Baina, politizatzen ari garelako ez duzuela mozioa onartzen esatea, gure ustez, ez da behar besteko arrazoia; beste kontu bat da ados ez egotea edo beste modu batera ikustea, ados... mila arrazoi egon daitezke, baina, ez politizatzen ari dela; zeren ez dakit politikorik ez den gairik ba ote dagoen, ez dakit. Zalantzak ditut.

### **3.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2017ko azaroaren 22ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da. Berariaz eman da 17. eta 18. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

### **3.- 19. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA (kreditu-transferentzia modalitatea).**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 19. expedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaiot araudiai egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 19. expedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

#### Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0200.120.342.20.01 2017	OINARRIZKO ORDAIN:KIROLDEGIA	19.445,62	6.774,00	12.671,62
1 0200.121.342.20.01 2017	DESTINO OSAGARRIA:KIROLDEGIA	8.801,24	2.800,00	6.001,24
1 0200.121.342.20.02 2017	BERARIAZKO OSAG:KIROLDEGIA	29.322,63	5.910,00	23.412,63
1 0100.221.165.00.99 2017	BESTELAKO EROSK.:ARGITERIA PUBLIKOA	10.000,00	4.000,00	6.000,00
1 0300.227.231.10.19 2017	ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA	127.823,06	9.000,00	118.823,06
1 0200.330.011.00.01 2017	MAILEGUEN INTERESAK	1.348,81	1.348,81	0,00
1 0400.421.335.10.01 2017	APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	57.352,07	2.800,00	54.552,07
1 0100.421.431.40.01 2017	APORTAZIOA:ZUBILLAGA HILTEGIA	9.009,50	231,50	8.778,00
1 0100.470.150.00.01 2017	SURADESA	11.922,75	1.192,00	10.730,75
1 0500.481.241.00.01 2017	DIRU LAGUNTZA:GARAPEN PERTSONALA-LANA	25.000,00	25.000,00	0,00
1 0400.625.334.00.99 2017	BESTELAKO LANABESAK:KULTURA	28.000,00	28.000,00	0,00
1 0100.200.153.00.01 2017	ALKILERRA:S.MARINAKO APARKALEKUA	16.949,87	12.463,20	4.486,67
<b>GUZTIRA</b>		<b>344.975,55</b>	<b>99.519,51</b>	<b>245.456,04</b>

#### Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako	Gehikuntza	Amaierako
-------------	-------	-----------	------------	-----------

**2017 / 11/28**  
**Ohiko Osoko Bilkura**  
 Pleno ordinario

		<b>kreditua</b>		<b>kreditua</b>
1 0100.227.151.00.07 2017	AZTERKETA, LAN TEKNIKOAK: HIRIGINTZA	27.000,00	5.000,00	32.000,00
1 0100.221.161.00.02 2017	UR PATZUERGOA	268.462,06	25.000,00	293.462,06
1 0100.227.342.10.01 2017	GARBITASUNA: PILOTALEK UA	0,00	3.010,00	3.010,00
1 0100.212.342.30.01 2017	MANTUA: MAKINAK: IGERIL EKUA	7.500,00	4.500,00	12.000,00
1 0100.212.342.20.01 2017	MANTUA: MAKINAK: KIROL EGIA	10.000,00	8.000,00	18.000,00
1 0400.227.342.20.16 2017	KIROLDEGIKO EKINTZEN KUDAKETA	237.363,16	30.000,00	267.363,16
1 0100.212.342.20.04 2017	MANTUA: AIRE GIROTUA: KIROLDEGIA	423,52	700,00	1.123,52
1 0100.221.342.20.99 2017	BESTELAKO EROSKETAK: KIROLDEGIA	4.000,00	1.000,00	5.000,00
1 0400.215.920.00.01 2017	MANTUA: INFORMATIKOA: A DMON OROK.	21.960,31	2.000,00	23.960,31
1 0100.211.920.00.01 2017	MANTENIMENDUA: UDALE TXEA	591,05	2.150,00	2.741,05
1 0100.227.920.00.01 2017	GARBITASUNA: UDALETXE A	0,00	2.703,00	2.703,00
1 0200.227.932.00.09 2017	GFA ZERGABILKETA ZERB: ZEGAK LOKALAK	4.000,00	2.100,00	6.100,00
1 0200.933.011.00.01 2017	MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	205.987,03	600,00	206.587,03
1 0200.421.920.00.01 2017	MANKOMUNITATEA: ADMO N. OROKORRA	46.371,92	0,04	46.371,96
1 0100.601.165.00.02 2017	INBERTSIOAK: ARGITERIA PUBLIKOA	71.687,55	12.417,27	84.104,82
1 0200.227.920.00.23 2017	KONTRATUA: OSASUNA SAINTZA ESP TEK	4.924,05	339,20	5.263,25
	<b>GUZTIRA</b>	<b>910.270,65</b>	<b>99.519,51</b>	<b>1.009.790,16</b>

**2017 / 11/28**  
**Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno ordinario

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

**4.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK  
BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan  
berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko  
3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritako betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2017ko hirugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**5.- GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILU SORTZEA ETA BERE ERREGELAMENDUA  
ONARTZEA.**

Onurakotzat jotzen da Gizarte Ekintzako Kontseilua sortzea herritarren parte hartze organo bezala herriko gizarte zerbitzuen planifikazio, antolaketa eta funtzionamendurako.

Toki erregimenari buruzko araudiak zein Udal Erregelamendu Organikoaren 24. artikuluak arlokako kontseilu aholkulariak sortzeko aukera ere aurreikusten dute herritarren parte hartzea bideratzeko, kontseilu horien funtziak aholkuak ematea eta proposamenak egitea izanik.

Eskoriatzako Gizarte Ekintzako Kontseilua sortzea eta bere erregelamendua onartzea Udalbatzarrak erabaki behar du, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horiek horrela, Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako diktamena ikusita, eta udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako Gizarte Ekintzako Kontseilua sortzea eta administrazio espedientean jasota dagoen bere erregelamendua hasiera batean onartzea.

**BIGARRENA.-** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki oholean eta Udal web gunean argitaratzea, 30 egun baliodunen epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den bihamarunetik kontatzen hasita, egoki iritzitako erreklamazioak jarri edota iradokizunak egin ditzaten herritarrek.

**HIRUGARRENA.-** Aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunei buruzko txostena egingo da, eta Udalbatzarrari horiek onartzeko edo ez onartzeko eta erregelamendua behin betiko onartzeko proposamena egingo zaio.

**LAUGARRENA.-** Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, hasierako onarpena behin betikotzat joko da Alkatetzaren erabaki bidez, eta prozedura amaitzeko Eskoriatzako Gizarte Ekintzako Kontseilua martxan jartzeko egin beharreko tramiteak egiteko aginduko da.

## **6.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.**

2014ko abenduaren 9an egindako Udalbatzarrak erabaki zuen alde batetik, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA emateko kontratua GIZADI ELKARTEARI esleitzea prezio honetan: 19,26 €/orduko astegunetan eta 23,18 €/orduko jaiegunetan, gehi BEZari dagozkion 0 euro; eta bestetik, 162.288 euroko gastua onartza, hori izanik zerbitzuaren kostua 2015eko ekitaldirako. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa zen.

Administrazio baldintza partikularren agiriko 2. baldintzaren arabera, epe hori beste bi alditan luza zitekeen urtebetez. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikuluaren arabera.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du komenigarri ikusten duela kontratua bigarren aldiz luzatzea urtebetez, izan ere, GIZADI ELKARTEAK emandako zerbitzuak beharrezkoak dira etxez etxeko zerbitzuaren funtzionamendu onerako, Eskoriatzako Udalak ez baitu langilerik lan horiek egin ditzakeenik.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikuluaren arabera, kontratuaren luzapena kontratacio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** ETXEZ ETXEKO zerbitzua emateko kontratua bigarren aldiz luzatzea urtebetez, 2018ko urtarrilaren 1etik hasitako eraginarekin, baldintza agiriko bigarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikulan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Kontratua arautzen duen baldintza agirian berariaz jasota dago kontratua luzatuz gero prezioak berrazterzeko erabili beharreko formula.

Formula horren arabera, luzapen urterako kontratuaren prezioa egungo prezioari aurreko urte naturaleko estatuko Kontsumorako Prezioen Indizean izandako aldaketaren % 85a aplikatuta finkatuko da.

**HIRUGARRENA.-** Aurrez esandako luzapenari dagokion gastua baimentzea. Gastu hori 117.526,46 eurokoa da, eta udal aurrekontuko 0300.227.231.10.19.2018 partidaren kargura egingo da.

**7.- KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUAREN 2017KO URRIAREN 5eko AGINDUZ ONARTUTAKO EUSKAL KULTURA ONDAREAREN GARRANTZIA AZPIMARRATU ETA HEDATZEKO 2017-2019 ALDIRAKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIAREN AURREAN ESKORIATZAKO UDALAK HARTUTAKO KONPROMISOA.**

2017ko urriaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko urriaren 5eko AGINDUA, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2017-2019 aldirako diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.

Udal honi interesatzen zaio azken urteetan Atxorrotxen egiten ari diren arkeologia indusketa eta bertan agertutako egituren finkatze lanei jarraipena ematea, eta horretarako diru laguntza eskatu beharra du aipatutako diru laguntza deialdiaren barruan.

Deialdia arautzen duten oinarrietako 4.6 artikuluak ezartzen du administrazio publikoek jarduera egiteko aurrekontu kreditua dagoela dioen ziurtagiria aurkeztu beharko dutela, edo horrelakorik izan ezean, jarduera egiteko organo eskudunak hartutako erabakia.

Kontuan izanik diru laguntza eskatzen den jarduerak 2018an eta 2019an egingo direla, eta ez dagoela aurrekontu kontsignaziorik horretarako, Garapen batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Erabilgarri izango ditugun baliabide ekonomikoek bideragarri egiten duten neurrian, 2018 eta 2019 ekitaldietako udal aurrekontuetan aurrekontu kontsignazioa jasoko da Atxorrotxen egin nahi diren jarduerak finantzatzeko. Jarduera horietarako eskatu da diru laguntza aurrekarietan esandako deialdiaren babesean.

**Bigarrena.-** Jakinaraztea 2018ko udal aurrekontuetarako proposamenean jasota dagoela aurrekontu kontsignazio bat jarduera horietarako.

**8.- DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAREN ETA BERA OSATZEN DUTEN ZENBAIT UDALEN ARTEKO HITZARMENA KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOAREN INSTALAZIOAK BERRITZEKO BATERAKO BIGARREN PROIEKTUA GARATZEKO, ENERGIA DIBERTSIFIKATU ETA AURREZTEKO INSTITUTUAK FINANTZATUTA.**

Ingurumena kontserbatzea egungo gizartearen erronka nagusietako bat da, etorkizuneko beraunaldien bideragarritasuna bermatzeko. Klima-aldaleta arintzeko neurriak hartu beharra premiazkoa eta urgentea da. Duela gutxi Parisen klimari buruz egin den gailurrean hartutako erabakiek guztiak erantzukizuna planteatzen dute konpromiso honetan.

Besteak beste, energiaren kontsumoa murriztea eta energia-eraginkortasuna areagotzea lehentasunezko jardun-estategiak dira.

Debagoineneko Mankomunitateak hainbat lan egiten dihardu energiaren arloan. Besteak beste, eskualdeko industriaren arloan energiaren eremuan balio-katearen azterketa egin da, baita Mankomunitatearen Arrasateko egoitzan energia-diagnosia ere, eta ondorioz elektrizitatearen hornikuntza eta kontsumoa zuzentzeko neurriak hartu dira.

Ildo horretatik, Mankomunitateak 2015ean zera planteatu zien bera osatzen duten udalei: eskualdeko udalerrietan kanpoko argiteriaren instalazio publikoak berritzeko baterako proiektu bat garatzeko aukera. Horren aldeko jarrera teknikoa hartu ondoren, udalerri bakoitzean aurreikusitako jarduketen deskribapen-txostenak egin ziren, eta aurreikusitako jarduketak eskualde mailako proiektu bakar batean batu ziren, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuan (IDAEn) aurkeztuz eta bere laguntza finantzarioa lortuz. Gaur egun proiektu honi dagozkion instalazio lanak egiten ari dira.

2017ko apirilaren 8an, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutoak (IDAEn) argitaratu zuen finantza-laguntza deialdi berri baten oinarriak onartzen dituen apirilaren 5eko ebazpena. Deialdi hau dela eta, Mankomunitateak bere udalei proposatu die argiteria publikoa berritzeko bigarren proiektu bat garatzeko azterketa egitea.

Ondorioz, idatzitako proiektuak eskualdeko udaletan zenbait jarduketa jasotzen ditu. IDAEk onartu eta finantzatuko balu proiektua, dagokion kontratazio-espedita izapidezko litzateke Mankomunitateak gauzatu ahal izateko.

Kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berrituko dituen egitasmoak honako helburu hauek lortuko lituzke:

- Energia elektrikoaren kontsumoa %30 gutxienez murriztea.
- Kanpoko argiteria erregulatzea, eskakizun ezberdinetara egokituz.

- Jarduketak BTE-Behe Tentsioko Erregelamendura (RBT) eta energiaginkortasunerako arauetara egokitzea.
- Instalazio berrien kalifikazioa A edo B motakoa izango da.
- Argi-puntu bakoitzeko gehienezko finantzaketa 600€-koa izango da.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Energia Dibertsifikatu eta Aurreztekо Instittuak finantzatutako kanpoko argiteriaren instalazioak berritzeko baterako bigarren proiektu bat garatzeko proposatutako hitzarmena sinatzea Debagoieneko Mankomunitatearekin. Hitzarmenak honako baldintza hauek ditu:

**LEHENA.-** Debagoieneko Mankomunitatearen Estatutuen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, non aipaten baita bere xeeda, Hitzarmen honen sinatzaileek jarduketa hau aipatu artikuluaren hirugarren atalean kokatzea erabaki dute, hor berariaz sartzen baita "udal-ekintza zehatzten koordinazioa", jarduketa hau babesten duena, honetarako aldez aurretik dagozkion udal-erabakiak hartu direlarik.

Ondorioz, aurretik IDAEk proiektua onartu eta finantzatzea ebaeten badu, Mankomunitatea arduratuko da elkarrekin idatzitako Hitzarmen hau izenpetzen duten udaletan kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko proiektua gauzatzeaz, bere aurrekontu osoa 863.563 €-koa izanik, honako xehetasunaren arabera udalerriko edo loteka:

Aretxabaleta: 234.061 €.

Arrasate: 474.861 €.

Bergara: 68.847 €.

Eskoriatza: 85.794 €.

Horretarako, sinatzen duten udalek baimena ematen diote Mankomunitateari proiektuan implikaturiko udal-instalazioetan —berorien titulartasuna aldatu gabe— aipaturiko proiektua zuzen gauzatzeko beharrezko jarduketak egin ditzan, baita horien garapenerako beharrezko neurriak hartu ere.

**BIGARRENA.-** Idatzitako proiektua kudeatzeari eta, hala badagokio, gauzatzeari dagokionez, Debagoieneko Mankomunitateak honako lan hauek egingo ditu:

Energia Dibertsifikatzeko eta Aurreztekо Instittuaren aurkeztea Hitzarmen hau sinatzen duten Udalek eta Mankomunitateak batera garatutiko proiektua.

IDAEk onartzen badu aurkezturiko proiektua, aipaturiko onarparen ebazen jakinarazten denetik aurrera gehienez ere 3 hilabeteko epean, proiektua loteka gauzatzeko dagokion kontratazio-espedientearen izapideak hasiko ditu Mankomunitateak, lote bakoitzak udalerri bakoitzean aurreikusitako jarduketari dagokiarik.

Eraikuntza obretako osasun eta segurtasun araudi minimoa jasotzen duen 1997/1627 Errege Dekretuaren ildotik, Mankomunitatea promotore gisa arituko da.

Proiektua esleitu ondoren, dagokion mailegua izenpetuko du oinarri erregulatzaileetan eta IDAEk egindako deialdian ezarritako baldintzen arabera.

Mankomunitateak, implikaturiko udalen laguntzaz, proiektuaren garapena ikuskatuko du eta dagozkion fakturak ordainduko ditu, gehienez ere urtebeteko epean amaitu behar direlarik lanak, kontratua sinatu ondoren.

Mankomunitateak udalei eskatuko dizkie IDAErekin kontrataturiko maileguaren amortizazioei aurre egiteko dagozkion ekarpenak, eta dagozkion ordainketak egingo ditu mailegu-kontratuan hitzarturiko epeetan.

Mankomunitateak IDAEren deialdiekin bateragarri diren beste lagunza-deialdi batzuk aztertuko ditu, eta beharrezko gestioak egingo ditu horiek eskatzeko eta, onartzen badira, gero kudeatzeko. Dena den, lagunza horiek IDAErekin hitzarturiko mailegua amortizatzeko erabiliko dira.

**HIRUGARRENA-** Proiektuan parte hartzen duten Udalek, bestalde, honako lan hauek egingo dituzte:

Mankomunitatearekin kolaboratuko dute beren udalerrian kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko lanak egiteko beharrezko lagunza teknikoa emanez, gai honetan adituak diren teknikarien dedikazioaren bidez.

Proiektuan parte hartzen duten Udaletako bakoitzak dagozkion ekarpenak ordainduko ditu bere udalerrian gauzaturiko inbertsioen arabera, IDAErekin kontrataturiko maileguari dagozkion amortizazioak egin ahal izateko Mankomunitateak. Horretarako, IDAEren behin betiko ebazpenaren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, emandako maileguaren zenbatekoa eta baldintzak ezagutzen direnean, Mankomunitateak proiektuan parte hartzen duten Udal bakoitzarekin hitzarmen bat sinatuko du egin beharreko ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehatzuz.

Proiektuan parte hartzen duten Udalek, hornikuntza eta instalazioaren harrera egin ondoren, egindako instalazioaren jabe izango dira eta beharrezko mantentze-lanak beren gain hartuko dituzte.

Kontratuan ezarritako berme epean, Mankomunitateak kudeatuko ditu empresa esleipendunak konpondu beharreko aipatu epean sortutako arazoak.

**LAUGARRENA.-** Proiektuaren edozein aldaketak dagokion Udalaren aurretiazko baimena beharko du. Aldaketa horrek gastua gehitzea baldin badakar, instalazioaren jabea den Udalak Mankomunitateari ordaindu beharko dio gehikuntza hori kontratistari ordaintzeko data baino lehen.

**BOSGARRENA.-** Hitzarmen hau indarrean izango da bertan aurreikusitako jarduketak amaitu arte.

**SEIGARRENA.-** Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta beronen interpretazio eta garapena herri-administrazioen arteko hitzarmenei aplikatzen zaien administrazio-ordenamendu juridikoaren arabera arautuko dira.

Hitzarmena interpretatu eta betetzerakoan sortzen diren auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumende eta erabakipean jarriko dira.

## **9.- IRABAZI ESKORIATZA ETA ESKORIATZAKO EH BILDU UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HERRITAREN DEFENTSAN- KALITATEKO GARRAIO PUBLIKOA.**

Hitza eman ondoren, EH BILDUREn bozeramale Aitor Zubizarretak bere taldeak eta IRABAZI Eskoriatza taldeak onartu dadin aurkezten duten mozioa irakurri du, hitzez hitz, honako hau:

**2017 / 11/28  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**

## *Herritarren defentsan: kalitatezko garraio publikoa*

*Mozioa*

*Garraio publikoak hobekuntza nabarmenak eduki ditu gure bailaran azken urteotan. **Marjinala izatetik erabilgarri izatera** pasatu da. Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate lotzen duen linearen erabilera geroz eta handiagoa da: 2017ko lehenengo 6 hilabetetan 486.000 erabilera eduki ditu, aurreko urtean baino %8 gehiago. (Lurraldebus. 2017ko 1. seihilekoaren Txostena)*

*Gauden egoerara ailegatzeko bi aldaketa aipagarriak eman dira garraioa hobetze aldera. Lehenengo aldaketan, maiztasun luzea eta ordutegi murritza edukitzetik, 20 minutuko maiztasun eta ordutegi zabalagoa edukitzera pasatu ginen. Bigarrenean, aurreko legealdiaren bukaeran eman zena, jendea eta erakundeen partehartzearekin (ia 100 bilera eta 5000 ekarpen baino gehiago) Gipuzkoa osorako lizitazio berria egin zen. Gure eremuan, **maiztasunak** areagotu (15 minuto) eta **konexioak hobetu** ziren.*

*Lehen aipatu dugun hazkundeak egindako inbertsio eta aldaketen ondorioa da. Garraio publikoa kalitatekoa den neurtzeko, erabilera baino hoberik ez dagoelako. Horregatik **balorazio ezin hobea** egin behar dugu eta garatzeko eta hobetzeko bidean jarraitzeko determinazioa dugu. Garraio publiko eraginkorra edukitzea **oinarri oinarrizko eskubidea da**; pertsonak eta herriak lotzen eta mugikortasun eredu jasangarriagoa bultzatzen baitu.*

*Gainera, arlo ekonomikoan, Lurraldebusek duen egoera oso ona dela uste dugu. Herritarrok, ordaintzen dugun kopuruarekin zerbitzuaren %50eko kostua estaltzen dugu; Bizkaibusek, %27 estaltzen duen bitartean.*

*Horregatik guztiagatik, zeunden eta oraindik dauden hobekuntzei aurre egiteko momentuan gaudela uste dugu;*

- **Linea ezberdinaren koordinazioa** autobus bat baino gehiago batera ez pasatzeko.
- **Hiriburutara joaten diren lineak** eta herriak lotzen duen lineen arteko **loturak hobetzeko**.
- **Paraden kokapena** eta lineen trazadurak berrikusteko.
- **Maiztasunak 10-15 minututan mantendu-areagotzeo.**

*Baina puntu honetara ailegatuta, zeinek espero al zuen murrizketak egongo zirela hain ondo funtzionatzen duen garraio publikoan? Erabilera eta gogobetetzea maila ikusita, zelan planteatu daitezke **desinbertsio politikak** arlo honetan?*

*Ba hori zehazki pasatu da. Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza lotzen dituen linean (orain DG10) sekulako murrizketak egon dira. Astean zehar %35a murriztu da zerbitzuaren maiztasuna; 30 minutuko tarteak zabalduz autobusen jarioan. Larunbat eta igandetan %25ekoa izan da murrizketa eta larunbatetan zerbitzua gauean ordu bat lehenago bukatzen da, horrek dakarren guztiarekin.*

*Eta murrizketak ezartzeko prozesuari dagokionez; udalak, kasu hoberenetan, bi aukeren artean autua egiteko eskaintza eduki dute: biak txarrera joateko. Ez da inongo borondaterik egon zerbitzua hobetzeko eta **ikuspegia ekonomizista hutsa** besterik ez da erabili. Aurreko legealdiian egin zen **herritarren partehartzea guztiz baliogabetu da**; benetan zerbitzua ezagutzen dutenak gutxiesten.*

*Horregatik, Eskoriatzako Udaleko osoko bilkurak ondorengo puntuetai aipatzen diren akordioak hartzen ditu:*

- *Eskoriatzako udalak garraio publikoarekin duen konpromisoari eusten dio eta bere alde dagoen guztia egingo du zerbitzua hobetu eta bultzatzeko.*
- *Urritik aurrera Foru Aldundiak ezarri dituen murrizketak salatzen ditu; neurririk eta zentzu gabekoak baitira.*
- *Azken urtetan garraio publikoan egon diren inbertsioak emaitza positiboa eman dute. Horregatik Foru Aldundiari eskatzen diogu beste bide batetik jarraitu eta irailean indarrean zegoen zerbitzua oinarri hartuta, hobetzeko neurriak har ditzala: inoiz ere ez desinbertsio politikak egiten.*
- *Eskoriatzako udalak, herritarren partehartzea bultzatzeko aldera, bilera publiko bat egingo du herritarren kexak eta nahiak entzuteko.*
- *Udal ordezkariek eta Foru Aldundiko ordezkarien arteko bilera bat eskatuko du udalak gaia aztertzeko, herritarren iritzia helarazteko eta akordio honen berri emateko.*

*Eskoriatzan, 2017ko azaroaren 28an*

Testua irakurri eta hitza eman ondoren, honako hauek hitz egin dute:

Rafa Bernal: ezer baino lehen, herritar eta erabiltzaile naizen aldetik kexatu behar naiz. Ordutegi aldaketa honek, egia esan, ezustean harrapatu nau beste pertsona askori bezala. Geltokira joan naiz, ordutegia begiratu dut, murrizketa ikusi, itxaron dut, autobusa ez da orduan iritsi, 5 minutu itxaron ditut, 10 minutu, 15, 20... hotz egiten zuen, autobus gidaria iritsi da, eta esan diot "zu eta 10ekoa zara, ez?" eta berak erantzun dit ezetz, zer gertatzen den galdetu diot, erantzun dit oso estresatuta dabiltzala ordutegi aldaketarekin. Era berean, beste erabiltzaile batzuekin hitz egin dut, eta badira kexak jartzen ari direnak, murrizketa hauen eraginak jasaten dituztenak, eta hori bistakoa da, egitate bat da. Aurreko larunbatean Arrasatera joan nintzen, eta erabiltzaile bezala ari naiz, ordu bete itxaron behar izan nuen. Nola edo hala moldatu behar izan nintzen 45 minutuz autobusa hartu ahal izateko. Autobusa hartzera joan, eta gainera, atzerapenez heldu zen. Ez dira murrizketa kontuak bakarrik, zerbitzua bera ere ez da eraginkorra. Sentsazioa dut zerbitzuaren gaitasun falta itzela dela. Ulertu behar dugu jendeak leku batera zerbait egitera joateko hartzen duela autobusa: dentistarengana, lanera, eskolara; eta horrelako atzerapen bat ezin da onartu. Berriz ere diot, egungo zerbitzua, murrizketekin, ordutegian dauden atzerapenekin, lardaskeria hutsa dela. Eta, lardaskeria hori jendea ari da jasaten, eta jende horien artean daude ni bezalako erabiltzaileak, gure ibilgailua har dezakegunak besterik ezean, baina, badira pertsonak autobusa beharrezkoa dutelako hartzen dutenak, ez dutelako batetik bestera joateko beste modurik, ez dutelako kotxerik edo ez dutelako aparkatzeko arazorik izan nahi, hainbat arrazoi egon daitezke. Berriz ere diot, egiten dudan lehenengo gauza herritar bezala kexatzea da.

Josu Ezkurdia: horretan ere ikusten dugu asmo politikoa dagoela. Politika egin nahi da herritarrei eta zerbitzu publiko bati eragiten dion gai batekin. BILDU eta IRABAIZI etengabe ari dira esaten gure administrazioan, ez bakarrik tokikoan, ez bakarrik Gipuzkoan, baita erkidegokoan ere, murrizketa asko egiten ari direla; baina, esan beharra daukat euskal erkidegoko gure administrazioa murrizketarik egin ez duen bakarra dela. Bide horretatik jarrai dezakezue, murrizketak egon direla esaten, zerbitzu publikoen aurka egin dela esaten. Guk argi dugu asmo politikoa dagoela eta mozioaren aurka bozkatuko dugula.

Rafael Bernal: zerbitzuak okerrera egin duela berriz esan ostean, honakoa esan du: hau politizatzea bada, nik uste dut egitate zehatzak direla, datuak dira. Zuek behin eta berriz esaten duzue bankuak pintatzen dituzuela, espaloiaiak konpontzen dituzuela, jendea hurreratzen zaizuelako eta kexatu egiten delako, bada, geltokietara hurreratu eta jendeari galdu ze iritzi duen. Uste dut kexatu egingo direla, ni bezala, eta arrazoiarekin. Hau egitate bat da. Badirudi udal honetan gauzak politizatza debekatuta dagoela. Mahairatutako edozein gai, “baserri bateko hodiak konpontzea edo lau argi jartzea” ez bada, politika da. Ez dakit.

(Ondoren mozioaren puntu bakoitza errepasatu du horietako zeinek izan dezakeen kutsu politikoa zalantzan jarri. Kutsu hori gainerakoan egon daitekeenik baztertuta, bigarren puntuaren zentratu da, eta esan du zerbitzuari buruzko kexa Aldundiari helaraztea besterik ez dela). Eta horrela amaitu du: eta, noski, ezin bagara kexatu, ba, politizatu egin beharko dugu.

Aitor Zubizarreta: garraioari buruz ari gara, lehen genuen zerbitzu bati buruz, Eskoriatzatik Zumarragara arte edonora joateko autobusik aldatu gabe. Gaur egun badira Eskoriatzako ikasle asko ezin direnak zuzenean Oñatira joan, Arrasaten autobusez aldatu behar dira, edo garaiz iritsi nahi baldin badute, kotxea hartu. Garraio publikoaz ari gara. Gaur egun Eibarrera joateko autobusez aldatu behar duzu Arrasaten eta 20 minutu itxaron, eta hori, gaur bezalako egunetan, hotz egiten duen egunetan, ba... Lehen, Oñatira edo Eibarrera joateko, esan beharrezkoan autobusez aldatzea Arrasaten. Eta edozeinek galde diezadake: baina, lehen, ondo zegoen? Ba, noski hobetu zitekeela! Noski baietz! Norbaitek esango du lehen 5 autobus batera egoten zirela erdiguneko geltokian, baina, zergatik? ba, nik galdu dut eta erantzun didate goikoan lapurretan izaten zirelako eta ez zegoelako komunik gidariantzat. Alderdi guzti horiek hobetu beharrekoak dira, eta hobetu daitezke, baina, hitz egin dezagun. Baina, nork erabaki du hori guztiori murriztea? Nori galdu zaio egin baino lehen? Gidariei galdu eta erantzuna hau izaten da: esan zuen alkateari. Non galdu da? Gu, hemen behintzat, ez gara enteratu, eta galdu kalean jendeari... Ba, noski, sinadurak batzen ari gara. Murrizketei buruz hitz egiten ari gara, funtzionatzen zuen garraio publiko bati buruz, hori bai, hobetu beharrekoa, baina, 15-20 minutuko maiztasuna zuena, eta hori, zerbitzu batean, kalitatea da. Beharbada, ez dira

beharrezkoak lehengo linea guztiak, baina puntako orduak izango dira... baina, hitz egin dezagun, zenbat aldiz esan eta gogorarazi diguzue "inposizio" hitza? Nork erabili du termino hori hemen? Hau ez al da izan inposizio bat? Nori galdetu zaio? Lehen 100 bilera 500 ekarpen, eta, orain? Murrizketak! Eta ez gara bakarrak. Uste dugu garraio publiko zerbitzu on baten alde gaudela, eta horretarako badaude zenbait adierazle, esate baterako, puntualitatea eta maiztasuna. Zergatik nik Eskoriatzatik Arrasatera joateko ordu erdi itxaron behar dut, eta Grosen bizi den batek Donostiako erdi aldera joateko 10 minuturo du autobusa? (beste adibide batzuk jarri ditu). Uste dut hor egin behar dela gogoeta, eta datuak datu dira. Ni ez naiz administrazioarekin sartu behar, hori ez baita gaurko gaia, baina, gure zerbitzuan -genuena eta hobetu zitekeena- murrizketak ez dira hobekuntzak. Nik uste dut ez dugula hobetu, askoz ere okerrago gaudela, eta mozio hau horri buruzkoa da. Joan gaitezen Udal bezala Aldundira zerbitzua hobetzearen bila.

Josu Ezkurdia: berriz ere esango dut garbi dugula mozioa politikoa dela, ez baitira murrizketak, baizik eta garraio publikoaren zerbitzuaren hobekuntza edo berrantolaketa. Horregatik, ez dugu mozio hau onartu behar eta bestelakorik ere ez; Aldundiarekin edo beste edozein administrazioarekin hitz egitea baldin bada kontua, nahiago dugu zuzenean hitz egitea. Zentzu horretan, esan behar dugu ikusi behar dela nola funtzionatzen duen sistema berriak, uste dugu sistema egokia eta jasangarria dela. Ikusiko da. Eta horregatik diogu mozioaren aurka bozkatuko dugula.

Rafa Bernal: jasangarria diozunean, ekonomia ikuspuntutik esan nahi duzu?

Josu Ezkurdia: hitzak izan ditzakeen esanahi guztietatik esan nahi dut, jasangarria ez, behintzat, autobusa hutsik doanean.

Aitor Zubizarretak berriz ere dio jendea kexu dela zerbitzuan izandako aldaketarengatik, adibidez, orain ezin baita joan Oñatira autobusez aldatu gabe.

Rafa Bernalek berriz ere dio herriar bezala berri zegoen kexu dela zerbitzuarenengatik, eta baita ere aldaketa horiek egin zituenak, bere ustez, ez zekiela zertan ari zen. Aipatu du ere Diario Vascon urriaren 26an argitaratutako albisteak eta hitzez hitz irakurri du izenburua: "competencia concluye que 17 empresas de transporte se han repartido el mercado en Gipuzkoa desde 1988". Eta esan du: hau da, lekuetara berandu eramaten nauten autobusak, badirudi, pixka bat mafiosoak direla.

Alkateak: lehendabizi, Rafa, eskatu behar dizut zuzentzeko, uste baitut datu horiek ez direla garraio publikoa zerbitzuari buruz, baizik eta eskola garraioari buruzkoak. Bigarrenik, datuak eskatu dituzue eta datuak emango dizkizut. Gure erabiltzaileen % 90a Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate bitartean ibiltzen da. Ikusi beharko da % 90 horiek zer nolako beharrak dituzten eta ahaleginak egin horiek asetzeko. Lehen, eta aipatu duzuen jasangarritasuna hizpide hartuz, Eskoriatzatik 185 autobus igarotzen ziren, eta ziur ez zutela "bat ere" "bat ere" kutsatzen. Eta, zerbitzuari dagokionez, kontrolatuta daude jende gehien ibiltzen diren orduak, puntako orduak deitutakoak, baina arrazoizko zerbitzu bat nahi baldin badugu, koherentziaz antolatu beharko dugu. Hobetu behar dela, noski! Eta, azken datu bat, 7 izan dira gaur arte udaletxeen kexaren bat idatziz aurkeztu duten herritarrok eta 5 etorri dira Alkatetzako bulegora. Bost pertsona horien kexa eta idatziz kexatu diren 7 horietako 5ena Aldundira helarazi dira, beste biена ez, gaur jaso direlako. Guk, azaroaren 18an eta 25ean, bilerak egin genituen herritarrekin eta bilera horietan egon ziren kexa bakarrak erdiguneko biribilgunea hartzerakoan autobusek ateratzen duten zaratarengatik eta batzuek autobusa ez dakit zenbat denboran martxan uzten dutelako izan ziren. Horiek izan ziren jaso genituen kexak. Nik badut kexa bat, eta da gidariren batek kalean bertan pixa egin duelako goiko tabernan edo gasolinieran komunak izanik. Datu batzuk emanda, bakarrik gauza bat gehiago esan nahi dut: jaso diren kexa guztiak Aldundira bidali dira eta Aldundiarekin batera ari gara lanean. Aldundiak hasiera batetik, eta betiere egingarri denean, gauzak hobetzeko borondatea erakutsi du, eta uste dut horren guztorren emaitzak ikusiko ditugula. Oraindik hilabete igaro da bakarrik, eta denbora eman beharko zaio. Eta, amaitzeko, beste datu bat eman nahi dut, lehengo zerbitzuarekin alderatuz, erabiltzaile kopurua % 0,1ean jaitsi da bakarrik. % 0,1a bakarrik, eta beraz, gogoeta egin zenbateraino den txarra, zenbat denbora itxaron behar den... Gainera, uste dut egungo Eskoriatza-Bergara zerbitzua lehengoa baino puntualagoa dela, lehen ibilbide askoz ere luzeagoa egiten zuelako. Eta lehengo zerbitzuari dagokionez, esan behar da Udal honetan kexak jaso zirela zenbait autobusek hartzen zuten abiadurarengatik. Hori guztiori esanda, uste dut gaiaren gainean gaudela, eta beraz, gure aldetik jasoko ditugu iristen zaizkigun kexa guztiak eta Aldundiari helaraziko dizkiogu. Beste datu bat ere eman behar dut, niregana etorri ziren 5 pertsonetatik gehienak kexu ziren autobusek herri honetan eman behar dituzten itzulinguruengatik. Eta nik erantzun nien herritarrek onartu zutela Jose Arana kalea trafikoari itxita egotea zenbait ordutan, eta zabalik zegoenean norabide bakarrekoa izatea. Norbaitek hau erantzun zuen: bai, baina, nik ez nuen horren berririk izan. Tira, horren aurrean nik ezer gutxi esan dezaket, bakarrik herriak hartutako erabaki bat izan zela. Hau denoi esaten dizuet, beharbada, zerbitzua aztertu beharko denean, egin nahi den mugikortasun mahaian jarri beharreko kontuetako bat "zer herrian bizi garen eta garraio publiko zerbitzurako zer nolako alternatibak ditugun" gaiari buruzko gogoeta egitea izan daitekeelako, eta ea gai garen konponbideren bat aurkitzeko autobusak gaur egun

beste itzulinguru eman behar ez izateko, horrela zerbitzu hobea izango baita. Eta gauza bat esan behar dut argi eta garbi, saiatuko naiz kexa guztiak Aldundiari helarazten eta horientzako konponbidea aurkitzen. Nire eskapean bada inork ez duen sinatzen orri bat sinadurak eskatzeko, eta ez du inork sinatzen. Nik, horren aurrean, nahiago dut jasotako kexa guztiak Aldundiari zuzenean helaraztea, eta ahal den neurrian, irtenbidek aurkitzen saiatzea. Horregatik, argi eta garbi esaten dut mozioaren aurka bozkatu behar dugula.

Rafa Bernalek eskatu du mozioa puntuz puntu bozkatzea. Aurkako 6 botorekin (EAJ/PNVren 5 eta EEEren 1) eta aldeko 5 botorekin (EH BILDUREn 4 eta IRABAZIren 1) ez da onartu puntuz puntu bozkatzeko proposamena, eta mozioa osorik bozkatu da.

Mozioa bozkatuta, ez da onartu, aurkako 6 boto izan baititu (EAJ/PNVren 5 eta EEEren 1) eta aldeko 5 (EH BILDUREn 4 eta IRABAZIren 1).

#### **11.- GAI ZERRENDAN SARTUTA EZ ZEUDEN ERABAKIAK HARTZEA.- PRESAZKO TRAMITEA.**

Gai zerrendako gaiak aztertu ondoren, eta galde-eskeen txandara pasa aurretik, Udalbatzarrak erabaki dezan jartzen dira presazko arrazoientzatik ondorengo gaiak:

- Gizarte larrialdiatarako etxebizitza erabiltzeko baimena berresteia.
- 2017ko Euskararen nazioarteko eguna dela-eta, erakunde adierazpena.

Gai bien presa justifikatuta, eta botoetara jarrita, Udalbatzarrak, bera osatzen duten kideen gehiengo osoz, GAI BIAK PRESAZKOTZAT JOTZEA onartu da.

Ondoren, gai biak aztertu dira.

#### **12. GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZA ERABILTZEKO BAIMENA BERRESTEA.**

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Gizarte larrialdiatarako etxebizitza aldi baterako erabiltzeko MARIA FILOMENA DE ALMEIDA andreaki emandako behin behineko baimena berresteia. Erabilera ESKORIATZAKO UDALAK GIZARTE LARRIALDIETARAKO KUDEATUTAKO ETXEBIZITZAREN BARNE

**ERREGIMENEKO ERREGELAMENDUAN** finkatutako baldintzetan egin beharko da, eta hileko 384 euroko prezioan.

### **13.- EUSKARAREN EGUNARI BURUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA 2017.**

Onartu dadin Alkatetzak proposatzen duen adierazpena honako hau da hitzez hitz:

#### **Euskara auzolana**

##### **Euskarak lankide nahi eta behar gaitu, urtean 365 egunez**

Euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai. Elkarlanerako gai. Adostasunerako gai. Eta ospakizun eguna baliatu nahi dugu, hain zuzen, ilusioaren hauspoa haize berriz betetzeko. Indar berriez sendotzeko denon eginahala. Hori behar baitu euskarak, hori behar baitugu euskara guztion ezpaineretan, kaleetan, etxeetan, ziberespazioan, lantokietan, pantaletan, paperetan nahi dugunok: ilusioa. Eta elkarlana. Auzolana.

Ilusioa eta elkarlana, inork garai likidotzat definitu dituen gure gaurko hauek euskaltzaletasunez borborka jartzeko.

Ilusioa eta elkarlana, euskaren lurrarde eta esparru juridiko guztieta ahalik eta erarik bateratuenean gure hizkuntzarentzat etorkizun bizia irabazteko. Elkarrenganako adeitasunez. Elkartasunez.

Ugari izan dira eta dira han-hemengo herritarrek euskara eskuratzeko eta lantzko egindako ahaleginak. Hor dugu euskarak elikagai ezinbesteko duen euskaldun berri andana itzela. Hor ditugu seme-alabak euskaraz ikas dezaten nahi izan duten guraso erdaldunak. Hor ditugu dakiten euskara ezpaineretan dantzatzen ahalegintzen direnak...

Zenbat halako azken hamarkadotan: zenbat ahalegin pertsonal zein kolektibo, publiko zein herri ekimenekoak. Horiei guztiei zor diegu euskarak bizi duen errealitatea.

Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskaren erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskaren aldeko hizkuntza ohituren aldaketa sakona gauzatu dadin. Mingainak dantzan jartzeko premia dugu, eta, bistan denez, mundu aldakor honetan, kantu eta kontu berriak behar ditugu horretarako.

#### **Bide berriak, bide guztiak**

Hala nahi zuen jokatu Lizardi handiak literaturgintzan. Hala behar du euskarak. Halaxe behar du euskalgintzak ere.

Emankor gertatu dira, bistan denez, ibilitako bide asko. Eta elkarlana da emankortasun hori auzolanean areagotzeko giltzarria.

Une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiengo soziala euskaren alde egotetik euskaren alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko.

Une aproposa da euskaren lurrarde eta eremu guztiako herri aginteen arteko lankidetza ere berrikuntzaren bidetik sendotzeko. Erabileren mesedetan. Eta euskarak elkarlan horien guztiak premia du. Ezinbestez.

Ideien konfrontazioari uko egin gabe, irtenbideak adostuz, bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunekiko errespetuz, elkarrenganako leialtasunez, eta denok norabide berean bultzatuz.

Bakarka ezinezkoa da. Auzolanean, guztiz ilusionagarria.

#### **365 egun**

Musikari bakar batek ezin du orkestra oso baten doinua aldatu, zuzendariaren eta gainontzeko musikarien laguntza gabe. Euskal hiztun bakar batek nekez aldatuko ditu hizkuntza ohiturak, gizartearen babesik izan ezean.

**2017 / 11/28**

**Ohiko Osoko Bilkura**

Pleno ordinario

Hizkuntza ohiturak aldatzeko bide luzean, euskararen aldeko gehiengo soziala aktibatu behar: euskararen lurralteko guztiak administrazioak zein herri ekimena. Lurralte eta eremu guztiak erakundeak. Gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeak zein bestelako esparruetakoak. Euskaldun osoak, euskaldun hartzaleak eta erdaldunak.

Malgutasunez. Herri bakoitzaren errealtatera egokituz. Tokiko eragileekin urratsak adostuz. Parte hartzaile guztiak ahal dunduz.

Euskaltzaletasunaren sua indartuz hala Angelun nola Andoainen, Barkoxen zein Barakaldo, Eltziegon, Erronkarin eta Eskoriatzan.

Auzolana da bide bakarra. Hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboa izanen da ala ez da izanen.

Euskararen Eguneko gure konpromisoa, datozen 365 egunotan izan dadin lan egitea. Auzolanean lankide zintzo.

Euskara auzolana baita.

Proposatutako adierazpena aho batez onartu da.

#### **14.- GALDE-ESKEAK.**

##### **14.1.- Arizmendi S. Coop. ikastetxeari emandako diru lagunza ikastetxearen mantentze-lanen gastuak finantzatzeko.**

Rafa Bernalek galdu du nolatan eman zaion Arizmendiri 8.000 euroko diru lagunza 2017ko hasierako aurrekontuan ez baldin bada horretarako partidarik jasotzen.

Adierazi zaio ekitaldian zehar tramitatutako kreditu aldaketa espediente baten kargura izendun partida bat gaitu zela helburu horretarako.

Informazioa jasota, adierazi du kultura batzordeko aktan diru lagunza hori justifikatzen dela herriko ikastetxe publikoek ere diru lagunza jasotzen dutelako mantentze-lanen gastuetarako, eta gehitu du ez dela ahaztu behar horien kasuan legezko arau batek ezarritako betebeharra dela.

Josu Ezkundiak erantzun dio ez zekiela Luis Ezeiza Herri Eskolaren mantentze-lanetarako laguntzarik emateko betebeharrik zegoenik, baina, badakiela brigadakoek beraien lanaldiko ordu asko sartzen dituztela mantentze-lanetan; bere taldearentzat, betebeharra izan edo ez, arrazoi moral edo etikoengatik, herriko ikastetxe guztiei, publikoak edo hitzartutakoak, laguntzeko eta beraiekin lankidetzan aritzeko betebeharra dagoela.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:40an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.-APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada el 24/10/2017.

Antes de pasar al siguiente asunto del orden del día, Rafa Bernal, en nombre de su grupo IRABAZI Eskoriatza y en el de EH BILDU Eskoriatza, solicita se altere el orden de los asuntos y se pase a tratar a continuación el relativo a la moción sobre LA CREACIÓN DE UNA “MESA LOCAL DE MOVILIDAD URBANA”.

Sometida a votación la propuesta, por unanimidad SE ACUERDA aprobar la solicitud y, en consecuencia, se trata a continuación dicha moción.

## **2.- MOCIÓN: PROPUESTA DE LOS GRUPOS MUNICIPALES EH BILDU ESKORIATZA E IRABAZI ESKORIATZA PARA QUE EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA IMPULSE LA CREACIÓN DE UNA “MESA LOCAL DE MOVILIDAD URBANA”.**

Concedida la palabra, Rafa Bernal informa que tanto su grupo IRABAZI Eskoriatza como EH BILDU Eskoriatza han decidido retirar la moción.

Retirada la moción, manifiesta los motivos por los que han tomado dicha decisión.

Tras ello, se produce un debate entre los presentes. A modo de resumen las intervenciones son las siguientes:

\* Rafael Bernal: En la pasada Comisión de Urbanismo quedó patente que desde el equipo de gobierno había la preocupación de que la propuesta de la moción, es decir, la creación de una mesa de movilidad, sea desde su punto de vista politizada. Desde IRABAZI y BILDU queremos decir que en ningún momento se ha pensado en este sentido, creemos que es un tema complejo, que requiere de un alto consenso y de participación. Y lógicamente, la politización de un asunto como este únicamente nos llevaría a un fracaso colectivo. Como gesto, y para evitar que en el pleno de hoy se pudiera ver afectado por el tema de los autobuses, procedemos a su retirada. Al mismo tiempo, invitamos al PNV y a Elizateak a que este asunto, de gran calado e interés para la ciudadanía, sea tratado en la próxima comisión, o mejor aún, en una comisión monotemática.

\* Josu Ezkurdia: Por nuestra parte, y en primer lugar, agradecer vuestra propuesta porque desde nuestro punto de vista es verdad que creímos que este asunto se politizaba, y es de agradecer que vosotros lo hayáis visto así. Y en segundo lugar, aceptamos la invitación; aunque ya teníamos previsto que para la comisión de diciembre quedarían definidas las líneas generales de nuestra propuesta sobre la movilidad y se presentarían a todos vosotros. Nos hacemos uno con vosotros, también creemos que este tema ha de tratarse porque , habiendo pasado dos años de legislatura, entendemos que hemos hecho mucho en torno a este asunto y tenemos intenciones de seguir haciendo más en lo que queda. Por eso, nuestra intención era presentar nuestra propuesta en la comisión y tratar de consensuarla con todos vosotros.

Rafa Bernal: Bueno, lo de politicar, y así lo hice saber en la comisión, desde nuestro punto de vista nunca fue nuestro objetivo. No consideramos que con esa moción se politiciza el asunto y no es por eso por lo que retiramos la moción, retiramos para evitar que se politicice.

